

*Lan-poltsa*  
***Administrazioko Goi-mailako  
Kidegoa***

**1. ariketa, alderdi teorikoa**

**A eredua**

**2015/03/01**

**1      EZ DA ADMINISTRAZIO-EGINTZATZAT JOTZEN...**

- 1a) Izangai bat oposizio-lehiaketa batetik kanpo uztea.
- 1b) Txosten lotesle bat.
- 1c) Espediente bat artxibatzeko ebazpena.
- 1d) Partikular batek aurkeztutako instantzia edo eskabidea.

**2      HERRITARREK ZERBITZU PUBLIKOETAN SARBIDE ELEKTRONIKOA IZATEARI BURUZKO LEGEAK...**

- 2a) Toki-erakundeei baino ez die eragiten.
- 2b) Estatuko Administrazioari baino ez dio eragiten.
- 2c) Administrazio publiko guztiei eragiten die.
- 2d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

**3      ADMINISTRAZIO-EGINTZATZAT JOTZEN DA...**

- 3a) Administrazioaren konsulta-organo baten irizpena.
- 3b) Administrazioarekiko auzien epaitegiaren auto bat.
- 3c) BEZaren autolikidazioa.
- 3d) Funtzionario bat esleitu dioten lanpostuaz jabetzea.

**4      HONELA SAILKA DAITEZKE ADMINISTRAZIO-EGINTZAK AGERTZEKO ERAREN ARABERA...**

- 4a) Ahozkoak eta idatziak.
- 4b) Berariazkoak edo espresuak eta isilbidezkoak edo tazituak.
- 4c) Ahozkoak, isilbidezkoak edo tazituak eta keinuzkoak.
- 4d) Berariazkoak edo espresuak eta ahozkoak.

**5      EZ DA ADMINISTRAZIO-ERREKURTTSOTZAT JOTZEN...**

- 5a) Berrikuspen-errekurso berezia
- 5b) Gora jotzeko errekursoa edo gorako errekursoa.
- 5c) Berraztertzeko errekursoa.
- 5d) Kasazio-errekursoa.

**6      ADMINISTRAZIO-ERREKURTSO DIRA...**

- 6a) Gora jotzeko errekursoa edo gorako errekursoa, berraztertzeko errekursoa eta apelazio-errekursoa.
- 6b) Gora jotzeko errekursoa edo gorako errekursoa, berrikuspen-errekursoa eta apelazio-errekursoa.
- 6c) Gora jotzeko errekursoa edo gorako errekursoa, berraztertzeko errekursoa eta apelazio-errekursoa.
- 6d) Erantzun horietako bat ere ez da guztiz zuzena.

- 7 EUSKO JAURLARITZAREN SAILBURU BATEK EMANDAKO EGINTZA BATEN KONTRAKO BERRAZTERTEZEKO ERREKURTSOA...**
- 7a) Errekurritutako egintza eman zuen organoaren goiko organoari aurkeztu beharko litzaioke, hau da, Eusko Jaurlaritzari.
- 7b) Errekurritutako egintza eman zuen organoaren goiko organoari aurkeztu beharko litzaioke, hau da, Lehendakari.
- 7c) Ezingo litzateke aurkeztu edo jarri, auzitegietara jotzeko aukera baino ez litzatekeelako geratuko.
- 7d) Errekurritutako egintza eman zuen organo berberari aurkeztu beharko litzaioke.
- 8 ERANTZUKIZUNA ADMINISTRAZIOARI ESKATZEKO ORDUAN, KALTE MORALA...**
- 8a) Ezin da alegatu, ezin baita ekonomikoki ebaluatu.
- 8b) Ezin da alegatu, jurisprudentziaren arabera ezinezkoa delako Administrazioak halako kalterik egin ahal izatea.
- 8c) Alegatu daiteke, nahiz eta ekonomikoki ebaluaezina izan.
- 8d) Alegatu daiteke, baldin eta benetakoa bada eta ekonomikoki ebalua badaiteke.
- 9 ADMINISTRAZIO PUBLIKOEK EZ DUTE ONDARE-ERANTZUKIZUNIK IZANGO...**
- 9a) Lesioa ezinbestearen (*fuerza mayor*) ondorio bada.
- 9b) Lesioaren zenbatekoa edo mutua txikia bada.
- 9c) Lesioa zerbitzu publikoen funtzionamendu onaren ondorio bada.
- 9d) Lesioa administrazioaren jarduterik ezari egotz badakioke.
- 10 HERRI-ADMINISTRAZIOEN ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA ADMINISTRAZIO-PROZEDURA ERKIDEAREN LEGEAREN ARABERA, PROZEDURAK HONELA HAS DAITEZKE...**
- 10a) Inoiz ez interesdunak eskatuta.
- 10b) Inoiz ez ofizioz (administrazioaren kabuz).
- 10c) Ofizioz (administrazioaren kabuz), salaketaren bidez.
- 10d) Ofizioz (administrazioaren kabuz), baina inoiz ez salaketaren bitartez.
- 11 TXOSTENAK ADMINISTRAZIO-PROZEDURA OROKORRAREN BARRUAN...**
- 11a) Inoiz ez dira nahitaezkoak
- 11b) Nahitaezkoak dira, baina ez lotesleak.
- 11c) Administrazio-organoek emandako iritzi teknikoak dira, eta organo eskudunek eman behar dituzten ebazpenetarako oinarritzat erabiltzen dira.
- 11d) Hogeita hamar eguneko epean eman behar dira xedapen espresu batek bestelako eperik ezartzen ez badu.
- 12 KONTRATU PUBLIKOEN ARLOAN INDARREAN DAGOEN LEGERIAREN ARABERA...**
- 12a) Kontratazio-organoek ezingo dituzte beren eskumenak eta ahalmenak eskuordetzan eman kontratatzeko garaian.
- 12b) Kontratazio-organoek ezingo dituzte beren eskumenak eta ahalmenak deskontzentratu kontratatzeko garaian.
- 12c) Kontratazio-organoek eskuordetzan eman edo deskontzentratu ahal izango dituzte beren eskumenak eta ahalmenak kontratatzeko garaian.
- 12d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

**13 EZINGO DUTE SEKTORE PUBLIKOAREKIN KONTRATATU...**

- 13a) Bidegabeko eralgitzea dela eta (*malversación*) epai irmo baten bitartez kondenatuak izan direnek.
- 13b) Giza hilketa dela eta (*homicidio*) epai irmo baten bitartez kondenatuak izan direnek.
- 13c) Sexu-askatasunaren aurkako delituak direla eta epai irmo baten bitartez kondenatuak izan direnek.
- 13d) Askatasun-gabetzea dakarren edozein delitu dela eta epai irmo baten bitartez kondenatuak izan direnek.

**14 KONTRATU TXIKIEN ESLEIPENA...**

- 14a) Lehia-elkarrizketaren (*diálogo competitivo*) bitartez egingo da.
- 14b) Zuzenean egin ahal izango zaio jarduteko gaitasuna eta prestazioa gauzatzeko beharrezko den lanbide-gaikuntza dituen edozein enpresabururi.
- 14c) Prozedura irekiaren bidez baino ezin daiteke egin.
- 14d) Prozedura murriztuaren bidez baino ezin daiteke egin.

**15 GEZURRA DA AUTONOMIA-ERKIDEGO GUZTIEK...**

- 15a) Legegintzarako eskumenak bereganatu zituztela.
- 15b) Zuzenbide Zibilaren alorreko eskumenak bereganatu zituztela.
- 15c) Egikaritze- edo exekuzio-eskumenak bereganatu zituztela.
- 15d) Bere autonomia-estatutua prestatu dutela.

**16 KONSTITUZIOAK ESTATUARI BEREN-BEREGI EDO ESPRESUKI ESLEITZEN EZ DIZKION GAIAK...**

- 16a) Estatuak inoiz ezingo ditu bereganatu.
- 16b) Estatuak bereganatzen ditu beti.
- 16c) Autonomia-erkidegoei egokitu dakizkieke.
- 16d) Toki-erakundeei egokitu dakizkieke.

**17 EUSKO LEGBILTZARKIDEEK...**

- 17a) Abantaila edo prerrogatiba hau baino ez dute: immunitatea jarduketa judizialen eta atxiloketen aurrean.
- 17b) Bortxaezintasuna gozatuko dute karguan aritzean izandako jokaerak eta emandako botoak direla eta; orobat, immunitatearen abantaila edo prerrogatiba izango dute jarduketa judizialen eta atxiloketen aurrean.
- 17c) EZ dute ez bortxaezintasuna gozatuko karguan aritzean izandako jokaera eta emandako botoengatik, ez eta immunitatearen abantaila edo prerrogatiba ere jarduketa judizialen eta atxiloketen aurrean.
- 17d) Immunitatea dute jarduketa judizialen aurrean, eta bortxaezintasunaren abantaila edo prerrogatiba izandako jokaerak eta emandako botoak direla eta.

**18 KONTZESIO EDO EMAKIDAREN FIGURAK ZUZENEKO LOTURA DU...**

- 18a) Zerbitzu-kontratuarekin.
- 18b) Hornidura-kontratuarekin.
- 18c) Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuarekin.
- 18d) Kontratu pribatuekin.

**19 LEHENDAKARIARI BERE EGINKIZUNAK ETEN AHAL IZANGO ZAIZKIO...**

- 19a) Legez ez dago modurik.
- 19b) Gehienez sei hilabetez.
- 19c) Baldin eta Jaurlaritzaren eskariz Jaurlaritzako kideen lau bostenek egoki irizten badiote.
- 19d) Baldin eta Estatuko Gobernuaren eskariz gobernu zentraleko kideen hiru laurdenek egoki irizten badiote.

**20 HAU EZ DA LEHENDAKARIAREN EGINKIZUN EDO FUNTZIOETAKO BAT...**

- 20a) Exekutibo autonomikoa eratzea.
- 20b) Konfiantza-arazoak planteatu edo aurkeztea.
- 20c) Arartekoaukeratzea.
- 20d) Eusko Jaurlaritzaren ekintza koordinatzea.

**21 ARAU OROKOR GISA...**

- 21a) Administrazio-prozeduran, interesdunaren ordezkari izateko nahitaezkoa da zuzenbide-lizenziatua izatea, kolegiatuta egotea behar-beharrezko ez bada ere.
- 21b) Administrazio-prozeduran, interesdunaren ordezkari izateko nahitaezkoa da zuzenbide-lizenziatua izatea eta kolegiatuta egotea.
- 21c) Beti egiaztago da ordezkaritza, salbuespenik gabe.
- 21d) Egiaztago da ordezkaritza izapide edo tramite hutsa diren egintza eta kudeaketetan.

**22 ORDEZKARITZA BEHAR BEZALA EGIAZTATZEN EZ BADA...**

- 22a) Inoiz ezingo da gauzatutzat jo dena delako egintza.
- 22b) Gauzatutzat jo daiteke dena delako egintza, baldin eta administrazio-organoak horretarako ezarritako epean egiaztago bida ordezkaritza.
- 22c) Gauzatutzat jo daiteke dena delako egintza, gehienez ere hogei eguneko epean egiaztago bida ordezkaritza.
- 22d) Gauzatutzat jo daiteke dena delako egintza, gehienez ere bost eguneko epean egiaztago bida ordezkaritza.

**23 HERRI ADMINISTRAZIOEN ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN LEGEARREN ARABERA...**

- 23a) Interesdunek badute eskubidea Administrazioak dagoeneko bere esku dituen dokumentuak ez aurkezteko.
- 23b) Interesdunei ez zaie betebehar hau ezarri: prozeduran agertu ez diren interesdunak identifikatzeko daturik izanez gero, datu horiek jarduten ari den Administrazioari ezagutaraztea.
- 23c) Herritarrek nahitaez agertu behar dute bulego publikoetara, lege-mailako arauen batean kontrakoa ezarrita dagoenean salbu.
- 23d) Prozedura bateko interesdunek ez dute eskubiderik prozeduretan jasota dauden eta eragiten dieten dokumentuen kopiak eskuratzeko.

- 24 NORK FINKATZEN DU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEOGOAK ESTATUARI EMAN BEHARREKO KUPOA ZEHAZTEKO METODOLOGIA?**
- 24a) Eusko Legebiltzarrak.  
24b) Batzar nagusi bakoitzak.  
24c) Gorte Nagusiek.  
24d) Foru-diputazio bakoitzak.
- 25 EKONOMIA ITUNAREN EDO KONTZERTU EKONOMIKOAREN BATZORDE MISTOAK –KUPOAREN BATZORDE MISTOA ESATEN ZITZAION LEHEN– EGINKIZUN EDO FUNTZIOTZAT DU:**
- 25a) Estatuko Administrazioaren eta foru-diputazioen artean gatazkari sortuz gero, gatazka horiei buruzko gai guztiak Zuzenbidearen arabera ebaztea.  
25b) Foru-diputazioen euren artean gatazkari sortuz gero, gatazka horiei buruzko gai guztiak Zuzenbidearen arabera ebaztea.  
25c) Egoki iritzitako azterlanak egitea.  
25d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.
- 26 EKONOMIA ITUNAREN EDO KONTZERTU EKONOMIKOAREN 48. ARTIKULUAREN ARABERA, ESTATUAREN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEOGOAREN ARTEKO FINANTZA-HARREMANEN PRINTZIPIO GIDARI DA, BESTEAK BESTE...**
- 26a) Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen zerga- eta finantza-autonomiaren printzipioa.  
26b) Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen tributu-independentziaren printzipioa.  
26c) Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen tributu-autonomiaren printzipioa.  
26d) Aurreko aukeretako bat bera ere ez da zuzena.
- 27 1978KO KONSTITUZIOAREN ARABERA, ESPAINIAKO ESTATUAREN FORMA POLITIKOA...**
- 27a) Zuzenbide-estatua da.  
27b) Monarkia parlamentarioa da.  
27c) Zuzenbide-estatu sozial eta demokratikoa da.  
27d) Zuzenbide-estatu soziala da.
- 28 1978KO KONSTITUZIOAK...**
- 28a) Onartu egiten du Gobernuan presidenteorde bat edo gehiago izateko aukera.  
28b) Dio presidenteordeen kopurua inoiz ez dela izango hiru baino gehiago.  
28c) Agintzen du Gobernuak gutxienez presidenteorde bat izan behar duela.  
28d) Dio Gobernuko presidenteordea berariazko sailik gabeko ministroa dela (*ministro sin cartera*).

- 29 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HERRI-ADMINISTRAZIOEN ZIGORTZEKO AHALMENARI BURUZKO LEGEARREN APLIKAZIO-EREMUTIK KANPO DAGO EDO DAUDE...**
- 29a) Administrazio publikoek haien zerbitzura dauden langileekiko edo administrazioarekin kontraturen bat duten langileekiko duten diziplina-ahala.
- 29b) Beren zehapen- edo zigor-ahala Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralte-eremuuan egikaritzen duten enteak; egikaritu ere, autonomia-erkidegoko erakunde komunek araugintzako eskumena duten arloetan.
- 29c) Beren zehapen- edo zigor-ahala Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralte-eremuuan egikaritzen duten enteak; egikaritu ere, autonomia-erkidegoko erakunde komunek Estatuarekin eskumenak partekatzen dituzten arloetan.
- 29d) Beren zehapen- edo zigor-ahala Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralte-eremuuan egikaritzen duten enteak; egikaritu ere, autonomia-erkidegoko erakunde komunek lurralte historikoetako organoekin eskumenak partekatzen dituzten arloetan.
- 30 EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN, ZEHAPEN- EDO ZIGOR-PROZEDURAK**
- 30a) Ofizioz hasiko dira organo eskudunaren erabaki bidez, eta ez dute beti frogaldirik izango.
- 30b) Ofizioz edo ukitutako pertsonaren eskariz hasiko dira, eta ez dute beti frogaldirik izango.
- 30c) Beti izango dute frogaldia.
- 30d) Ukitutako pertsonaren eskariz hasiko dira beti, eta frogaldia izango dute beti.
- 31 TOKI-FUNTZIONARIO BAT EUSKO JAURLARITZAREN SAIL BATERA IGAROTZEN BADA ZERBITZUAK EMATERA, ZER ADMINISTRAZIO-EGOERATAN GERATUKO DA JATORRIKO ADMINISTRAZIOAN?**
- 31a) Zerbitzu-eginkizunetan.
- 31b) Zerbitzu berezien egoeran.
- 31c) Nahitaezko eszendentzia emango zaio.
- 31d) Borondatezko eszendentzia eman dakioka, eta ez zaio denbora zenbatuko igoera, hirurteko eta eskubide pasiboen ondorioetarako.
- 32 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOAREN LEGEAREN ARABERA....**
- 32a) Behin-behineko lanpostuetan zerbitzuan jardutea ez da funtzio publikoan sartzeko merezimendutzat hartuko.
- 32b) Lan-kontratuko langileak honela sailkatzen dira: finkoak, bitartekoak (*interino*) eta aldi baterakoak.
- 32c) Zerbitzuak bitarteko (*interino*) gisa emateak funtzionario bihurtzeko lehentasun-eskubidea ekarriko du.
- 32d) Bada kasuren bat lan-kontratuko langileen lan-kontratuak idatziz egin behar ez direla.
- 33 ESTATUAK AUTONOMIA-ERKIDEGOEI ESKUALDA EDO TRANSFERITU DIEZIAIEKE ESTATUKO TITULARITATEKOAK DIREN GAIETAKO AHALAK...**
- 33a) Lege organikoaren bitartez.
- 33b) Lege autonomikoaren bitartez.
- 33c) Esparru-legearren bitartez (*ley marco*).
- 33d) Ezinezkoa da aukera hori, Konstituzio Auzitegiak berak debekatu baitu.

**34 ESTATUAREN ESKU EGONGO DA LEGEAK EMATEA AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARAU-XEDAPENAK HARMONIZATZEKO BEHAR DIREN PRINTZIPIOAK EZARTZEKO...**

- 34a) Inoiz ere ez.
- 34b) Baldin eta Gorte Nagusiek, ganbera bakoitzeko hiru laurdenen gehiengoz, premia hori hautematen badute.
- 34c) Baldin eta Gorte Nagusiek, ganbera bakoitzeko gehiengo absolutu edo osoz, premia hori hautematen badute.
- 34d) Baldin eta Gorte Nagusiek, ganbera bakoitzeko bi herenen gehiengoz, premia hori hautematen badute.

**35 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ESKUMENEKOA DA, ZEHAZKI, ESTATUAREN OINARRIZKO LEGERIA LEGE BIDEZ GARATU ETA BERE LURRALDEAN BETEARAZTEA GAI HONETAN...**

- 35a) Jabetza intelektuala.
- 35b) Jabetza industriala.
- 35c) Arrantza-sektorearen antolamendua.
- 35d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

**36 EUSKAL ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZUKO LANGILEEN DIZIPLINA-ARAUBIDE EDO - ERREGIMENEAN, FALTA OSO ASTUNTZAT (HUTSEGITE OSO LARRITZAT) HARTUKO DA...**

- 36a) Agintekeria (*abuso de autoridad*), lanpostuan aritzean.
- 36b) Bi egun edo gehiagoz lanera joan gabe egotea bata bestearen ondoren, justifikaziodun kausarik egon gabe.
- 36c) Zerbitzua uztea.
- 36d) Aurreko bat ere ez.

**37 GAIXO ITXURAK EGINEZ LANERA EZ JOATEA...**

- 37a) Falta astuntzat joko da (hutsegite larritzat).
- 37b) Falta oso astuntzat joko da (hutsegite oso larritzat).
- 37c) Falta arintzat joko da (hutsegite arintzat).
- 37d) Ez da halakotzat tipifikatuta ageri Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean.

**38 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEARREN ARABERA, FUNTZIONARIOEK EZ DUTE ESKUBIDERIK...**

- 38a) Administrazio-karrerarako.
- 38b) Beren espediente individuala aldatzeko.
- 38c) Beren espediente individuala ezagutzeko.
- 38d) Etenik gabeko lanbide-gaikuntzarako.

**39 EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO LEGEARREN ARABERA, FUNTZIONARIOEN BETEBEHARRA DA...**

- 39a) Nagusiekiko errespetua.
- 39b) Elebidunak izatea.
- 39c) Atzerriko hizkuntza bat jakitea.
- 39d) Aurreko bat ere ez.

**40 NORBERAREN INTERSARENGATIKO BORONDATEZKO ESZEDENTZIAK...**

- 40a) Lanpostu-erreserbarako aukera ematen du.
- 40b) Bost urte iraungo du.
- 40c) Gutxienez bi urte iraungo du.
- 40d) Ez du antzinatasunaren zenbaketa geldiarazten.

**41 ADIERAZI ZEIN EZ DEN ZUZENA:**

- 41a) Funtzionarioek, seme-alaba bakoitza zaintzeko, gehienez hiru urteko eszendentziarako eskubidea izango dute.
- 41b) Giza baliabideen berresleipen- edo berrizendapen-prozesu batek eragindako funtzionarioak, lehenengo bi faseetan lanposturik lortu ez badute, destinoaren zain deklaratuko dituzte.
- 41c) Funtzionario bat Gorte Nagusietako diputatu aukeratzen badute zerbitzu berezien egoeran deklaratuko dute.
- 41d) Nahitaezko eszendentzian dagoen funtzionarioak ez du zertan parte harturik bere kidegoko lanpostuak hornitzeko egiten diren lehiaketa guztietan.

**42 EUSKAL HERRI-ADMINISTRAZIOETAKO FUNTZIONARIOEN LANPOSTUAK BETETZEKO ARAUDI EDO ERREGELAMENDUAREN ARABERA...**

- 42a) Lehiaketak irekiak edo mugatuak izan daitezke.
- 42b) Honelakoak izan daitezke lehiaketak: merezimendu-lehiaketak edo oposizio-lehiaketak.
- 42c) Lehiaketak orokorrak edo espezifikoak izan daitezke.
- 42d) Aurreko bat ere ez da zuzena.

**43 INDARREAN DAUDEN ARAUEN ARABERA...**

- 43a) Langileak enpresaz aldatzen duen bakoitzean egin behar da Gizarte Segurantzako afiliazioa.
- 43b) Langilea sartu behar den Gizarte Segurantzaren erregimen edo araubide bakoitzerako egin behar da Gizarte Segurantzako afiliazioa.
- 43c) Afiliazioa bakarra eta orokorra da Gizarte Segurantzaren erregimen edo araubide guztiatarako.
- 43d) Lan-jarduera bat edo jarduera profesional bat utzi ondoren, langilea horretan berriro hasten den bakoitzean egin behar da Gizarte Segurantzako afiliazioa.

**44 ADIERAZI ZEIN EZ DEN ZUZENA:**

- 44a) Baimenak eskualdatu (transmititu) egin daitezke.
- 44b) Jarduera batzuek baimen bat baino gehiago behar dute, egin egingo badira.
- 44c) Baimena zer jardueratarako behar den, jarduera horren eraginkortasun edo efikaziarekin du zerikusia, ez haren baliozkotasunarekin.
- 44d) Badira baimen diskrezzionalak.

**45 LAN-POLTSEN BARRUAN DAUDENEN PUNTUAZIOARI...**

- 45a) 0.0003 puntu gehituko zaio aurreko urtean lan egindako egun bakoitzeko.
- 45b) 0.003 puntu gehituko zaio aurreko urtean lan egindako egun bakoitzeko.
- 45c) 0.03 puntu gehituko zaio aurreko urtean lan egindako egun bakoitzeko.
- 45d) 0.005 puntu gehituko zaio aurreko urtean lan egindako egun bakoitzeko.

- 46 TRESNA EDO LANABES DESBERDINEKIN HEL DIEZAIODEGU KALITATEAREN KUDEAKETARI, BAINA, HOBETSITAKO IKUSPEGIA EDOZEIN DELA ERE, BETI IZANGO DITU OINARRIZKO KONTZEPTU BATZUK INSPIRAZIO-ITURRI, HALA NOLA...**
- 46a) Administratuarenganako orientazioa.  
46b) Prozesuen araberako kudeaketa.  
46c) Helbururanzko orientazioa.  
46d) Aurreko aukeretako bat bera ere ez da zuzena.
- 47 HONELA ERE ESATEN ZAIO «PDCA»RI...**
- 47a) Kudeaketaren zikloa.  
47b) Bilakaeraren zikloa.  
47c) Kudeaketaren eta garapenaren zikloa.  
47d) Hobekuntzaren zikloa.
- 48 ZERBITZU-GUTUN EDO -KARTAK...**
- 48a) Erresuma Batuan sortu ziren 60ko hamarkadan.  
48b) Erresuma Batuan sortu ziren 90eko hamarkadan.  
48c) Estatu Batuetan sortu ziren 80ko hamarkadan.  
48d) Japonian sortu ziren 80ko hamarkadan.
- 49 AURREKONTUEN PRINTZIPIO POLITIKOEN ARTEAN EZ DUGU AURKITUKO...**
- 49a) Espezifikotasunaren printzipoa.  
49b) Batasunaren printzipoa.  
49c) Espezialitatearen printzipoa.  
49d) Eskumenaren printzipoa.
- 50 EZ DIRA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN AURREKONTU OROKORREN BARRUAN SARTUKO...**
- 50a) Sozietate publikoen aurrekontuak.  
50b) Jaulkitzeko zor publikoa.  
50c) Emateko abalak.  
50d) Partzuergo publikoen aurrekontuak.
- 51 AURREKONTU-EXEKUZIOAREN PROZESA...**
- 51a) Bi fasetan banatzen da.  
51b) Hiru fasetan banatzen da.  
51c) Lau fasetan banatzen da.  
51d) Bost fasetan banatzen da.
- 52 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO DIRUZAINTZA NAGUSIAK PRINTZIPIO HAUEK DITU ARAU...**
- 52a) Zehaztasuna, puntualtasuna eta zentralitatea.  
52b) Puntualtasuna, zehaztasuna eta zentralizazioa.  
52c) Puntualtasuna, erabateko segurtasuna eta zuzendaritzaren zentralizazioa.  
52d) Aurreko aukeretako bat bera ere ez da zuzena.

**53 ZEHARKAKO ZERGEN ARTEAN, HONETAN BAKARRIK DAGOKIO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIOARI ZERGAREN BILKETA ETA AURREKONTUA...**

- 53a) Ondasun Higiezinen gaineko Zergan.
- 53b) Jokoa orokorrean kargatzen duen Zergan.
- 53c) Produkzioaren, Zerbitzuen eta Importazioen gaineko Zergan.
- 53d) Bingo-jokoaren gaineko Zergan.

**54 ERREKARGU EXEKUTIBOA...**

- 54a) % 5 da, eta aplikatzen da zorra ordaintzen denean premiamendu-probidentzia jakinarazi baino lehen.
- 54b) % 2 da, eta aplikatzen da zorra ordaintzen denean premiamendu-probidentzia jakinarazi baino lehen.
- 54c) % 10 da, eta zorra ordaintzen denean aplikatzen da.
- 54d) % 20 da, eta zorra ordaintzen denean aplikatzen da.

**55 AURREKONTU OROKORREN LIKIDAZIOA OSATZEN DUEN DOKUMENTAZIOA AURREKONTU-EKITALDIA ITXI ETA GERO PRESTATU BEHAR DA; HAIN ZUZEN ERE...**

- 55a) Hurrengo ekitaldiko ekainaren 31 baino lehen.
- 55b) Hurrengo ekitaldiko uztailaren 31 baino lehen.
- 55c) Hurrengo ekitaldiko maiatzaren 31 baino lehen.
- 55d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

**56 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO EUSKAL LEGEA...**

- 56a) Ez litzateke Estatuko Administrazio Orokorean aplikatuko.
- 56b) Ez litzateke sektore pribatuaren aplikatuko.
- 56c) Ez litzateke unibertsitate publikoetan aplikatuko.
- 56d) Administrazio publiko guztietaen aplikatzen da.

**57 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO 4/2005 LEGEAREN ARABERA, ZUZENEKO DISKRIMINAZIOA EDO BEREIZKERIA IZANGO DA...**

- 57a) Pertsona bat, sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla-eta, beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatzen denean.
- 57b) Egintza juridiko batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago batি kalteak eragiten dizkionean.
- 57c) Irizpide batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago batি kalteak eragiten dizkionean.
- 57d) Aurreko erantzunetatik bat ere ez da zuzena.

**58 LEGEZ EZARRITAKO DEFINIZIOAREN ARABERA, DIRU-LAGUNTZATZAT JOKO LITZATEKE...**

- 58a) Autonomia-erkidegoetako Administrazioak dirua ematea onuradunen zuzeneko kontraprestazioarekin.
- 58b) Autonomia-erkidegoetako Administrazioak dirua ematea finantzatutako ekintzaren zenbatekoa 10.000 eurotik gorakoa denean.
- 58c) Autonomia-erkidegoetako eta toki-erakunde bateko Administrazioak dirua ematea bakoitzaren jarduera orokorrean finantzatzeko bakoitzaren eskumenen eremuan.
- 58d) Autonomia-erkidegoetako Administrazioak pertsona pribatu bati dirua ematea xede edo helburu publiko bat sustatzeko jokaera finantzatzeko.

**59 DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA ARRUNTA...**

- 59a) Zuzenekoa izango da.
- 59b) Publikoa izango da.
- 59c) Merezimenduena izango da.
- 59d) Norgehiagoka izango da (*concurrencia competitiva*).

**60 «SARRERA PUBLIKOAK DIRA, HAU DA, ARAUAK TRIBUTATZEKO BETEBEHARRAREKIN LOTZEN DUEN IZATEZKO EGOERA GERTATZEAGATIK HERRI-ADMINISTRAZIO BATEK EXIJITZEN DITUEN DIRU PRESTAZIOAK, GASTU PUBLIKOEI AURRE EGITEKO BEHARREZKOAK DIREN SARRERAK LORTZEA FUNTSEZKO HELBURU DUTENAK», ZEREN LEGEZKO DEFINIZIOA DA HORI?**

- 60a) Tributuena.
- 60b) Tasena.
- 60c) Kontribuzio bereziena.
- 60d) Zergena.

**61 TASAK...**

- 61a) Ondoko zerga-egitatea duten tributuak dira: zergapekoari bere ondasunen balioa handitzea zerbitzu publikoak zabaltzeagatik.
- 61b) Ez dira tributuak.
- 61c) Kontraprestaziorik gabe exijitzen diren tributuak dira.
- 61d) Definizio bat ere ez da zuzena.

**62 DATU PERTSONALAK BABESTEKO LEGE ORGANIKOAK DATUAK BABESTEKO EZARRI DUEN ARAUBIDEA EDO ERREGIMENA INOI~~Z~~ ZAIE APLIKATUKO...**

- 62a) Pertsona fisikoek dituzten fitxategiei, pertsona horiek etxeko jarduerak gauzatzen dituztenean.
- 62b) Toki-erakunde batek dituen fitxategiei.
- 62c) Euskal Herriko Unibertsitateak dituen fitxategiei.
- 62d) EUDELen fitxategiei.

**63 HERRITARREK ZERBITZU PUBLIKOETAN SARBIDE ELEKTRONIKOA IZATEARI BURUZKO LEGEAK...**

- 63a) Hau ezarri du: administrazio guztietan sor dadila administrazio elektronikoaren erabiltzailearen Defendatzailea.
- 63b) Hau ezarri du: Estatuko Administrazio Orokorean sor dadila administrazio elektronikoaren erabiltzailearen Defendatzailea.
- 63c) Ez dio ezer administrazio elektronikoaren erabiltzailearen Defendatzailea sortzeaz.
- 63d) Hau ezarri du: toki-administrazioan eta administrazio autonomikoan bakarrik sor dadila administrazio elektronikoaren erabiltzailearen Defendatzailea.

**64 ADIERAZI ZEIN EZ DEN ZUZENA:**

- 64a) Administrazio publikoek registro elektronikoak sortuko dituzte eskabideak jaso eta bidaltzeko.
- 64b) Erregistro elektronikoak sortzeko xedapenak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar dira beti, salbuespenik gabe.
- 64c) Zilegi da erregistro propioak gaitzea beste Administrazio baten eskumeneko eskabideak, idatziak eta komunikazioak jasotzeko; gaitu ere, administrazio publikoen arteko lankidetzarako hitzarmenen bitartez.
- 64d) Erregistro elektronikoek agiri edo dokumentu elektroniko normalizatuak onar ditzakete.

**65 ERREGISTRO ELEKTRONIKOETAN...**

- 65a) Administrazioa irekita dagoen egunetan bakarrik aurkezu ahal izango dira eskabideak.
- 65b) Urteko egun guztietan aurkezu ahal izango dira eskabideak, baina Administrazioa normalean jendearentzako irekita egoten den ordu-tartean.
- 65c) Urte osoan zehar eta egunean hogeita lau orduan aurkezu ahal izango dira komunikazioak.
- 65d) Inoiz ez dute onartuko komunikazioak aurkeztea dena delako Administrazioak jendearentzako duen arreta-ordutegitik kanpo.

**ERRESERBAKO GALDERAK****66 ADMINISTRAZIOAREN BERRIKUSPEN-AHALAK...**

- 66a) Beti eta edozein tokitan egikaritu ahalko dira.
- 66b) Ezingo dira inoiz egikaritu.
- 66c) Ezingo dira egikaritu beste inguruabar batzuk direla-eta ahal horiek egikaritza partikularren eskubidearen kontrako gertatzen denean.
- 66d) Egikaritu ahal izango dira beste inguruabar batzuk direla-eta ahal horiek egikaritza legearen kontrakoa denean.

**67 ADMINISTRAZIO BATEK EGINDAKO KALTEAREN KONPONKETA ERREKLAMATZEKO PROZEDURAREN INSTRUKZIO-FASEAN...**

- 67a) Ezinezkoa da inongo akordiorik lortzea kalte-ordinari buruz.
- 67b) Litekeena da kalte-ordinari buruzko akordioa lortzea nahiz eta alderdietakoren bat ados egon ez.
- 67c) Litekeena da kalte-ordinari buruzko akordioa lortzea alderdiak ados badaude.
- 67d) Jada ez dago inongo txostenik eskatu beharrik.

**68 SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEI BURUZKO LEGERIA DELA ETA, ADIERAZI ONDOKOETATIK ZEIN EZ DEN ZUZENA:**

- 68a) Sektore publikoko kontratuei buruzko indarreko legea ente publikoek diruz lagundutako kontratuei aplikatzen zaie.
- 68b) Kontratazio publikoari buruzko indarreko legeak eragin egiten die unibertsitate publikoei obra-kontratuak egiterakoan.
- 68c) Merkataritza-sozietate bat, baldin eta bere kapital sozialean zeharkako partaide badu, ehuneko 25etik gorako proportzioan eduki ere, erakunderen bat, hala nola unibertsitate publiko bat edota nortasun juridiko propioa duen partzuergoren bat, sektore publikoko kontratuei buruzko indarreko legearen mende egongo da.
- 68d) Gizarte Segurantzako laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen mutualitateak, kontratazioaren alorrean, sektore publikoko kontratuei buruzko indarreko legeriaren mende daude.

**69 EUSKADIKO AUTONOMIA ESTATUTUAREN ARABERA...**

- 69a) Hirurogeita hamabost legebiltzarkidek osatuko dute Eusko Legebiltzarra.
- 69b) Laurogeita hamar legebiltzarkidek osatuko dute Eusko Legebiltzarra.
- 69c) Funtzio betearazlea edo exekutiboa betetzen du Eusko Legebiltzarrak.
- 69d) Eusko Legebiltzarra bortxaezina edo ukiezina da.

**70 NOR JOTZEN DA INTERESDUN ADMINISTRAZIO-PROZEDURA BATEAN?**

- 70a) Prozeduran emandako ebazenak uki ditzakeen norbanakoen nahiz taldeen bidezko interesak dituen herritarra, prozeduran aurkezten ez bada.
- 70b) Prozeduran emandako ebazenak uki ditzakeen bidezko interesa individual hutsak dituen herritarra, prozeduran aurkezten ez bada.
- 70c) Prozeduran har daitezkeen erabakiek uki ditzaketen eskubideak dituen herritarra.
- 70d) Prozeduran emandako ebazenak uki ditzakeen taldeen bidezko interesak dituen herritarra, nahiz eta prozeduran aurkeztu ez.

**71 INDARREKO ARAUEN ARABERA, KUPOA ZEHAZTEKO METODOLOGIA:**

- 71a) Bost urtez behin ezarriko da.
- 71b) Hamar urtez behin ezarriko da.
- 71c) Lau urtez behin ezarriko da.
- 71d) Estatuko gobernuak exijitzen duen bakoitzean ezarriko da.

**72 EUSKADIKO AUTONOMIA ESTATUTUAK...**

- 72a) Modu itxian finkatzen du probintzien antolakuntza.
- 72b) Aukera ematen die batzar nagusiei eta diputazioei beste erakunde batzuk ezartzeko, nahiz eta foru-aurrekaririk izan ez.
- 72c) Aukera ematen die batzar nagusiei eta diputazioei beste erakunde batzuk ezartzeko, foru-aurrekariak badituzte, betiere.
- 72d) Ez du inola ere finkatzen probintzien antolakuntza.

**73 ESPAINIAKO KONSTITUZIOAREN ARABERA, ESTATUKO GOBERNUA HONELA OSATUA DA:**

- 73a) Presidentea; presidenteordeak, hala badagokio; ministroak, eta legeak ezarritako gainerako kideak.
- 73b) Presidentea, presidenteordeak, ministroak eta estatu-idazkariak.
- 73c) Ministroak.
- 73d) Aurreko aukeretako bat bera ere ez da zuzena.

**74 EUSKAL ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZUKO LANGILEEN DIZIPLINA-ARAUBIDE EDO - ERREGIMENEAN, FALTA ASTUNTZAT (HUTSEGITE LARRITZAT) HARTUKO DA...**

- 74a) Menpekoekiko errespetu-falta larria.
- 74b) Bateraezintasunei edo elkartuezinez buruzko arauak ez betetzea.
- 74c) Konstituzioarekiko leialtasun-betebeharra ez betetzea.
- 74d) Aurreko bat ere ez.

**75 FAMILIA ELKARTZEKO (BATERATU AHAL IZATEKO) BORONDATEZKO ESZEDENTZIA...**

- 75a) Ofizioz emango da, eta gehienez ere hamar urteko iraupena izango du.
- 75b) Alde batek eskatuta emango da, eta gehienez ere hamar urteko iraupena izango du.
- 75c) Ofizioz nahiz alde batek eskatuta emango da, eta gehienez ere urtebeteko iraupena izango du.
- 75d) Alde batek eskatuta emango da, eta gutxienez bi urteko iraupena izango du.

## *Bolsa de Trabajo*

## *Cuerpo Superior de la Administración*

**1<sup>er</sup> ejercicio, parte teórica**

### **Modelo A**

**01/03/2015**

**1      NO TIENE LA CALIFICACIÓN DE ACTO ADMINISTRATIVO...**

- 1a) La exclusión de un candidato a un concurso-oposición.
- 1b) Un informe vinculante.
- 1c) La resolución por la que se archiva un expediente.
- 1d) Una instancia presentada por un particular.

**2      LA LEY DE ACCESO ELECTRÓNICO DE LOS CIUDADANOS A LOS SERVICIOS PÚBLICOS...**

- 2a) Sólo afecta a las entidades locales.
- 2b) Sólo afecta a la Administración del Estado.
- 2c) Afecta a todas las Administraciones Públicas.
- 2d) Ninguna de las anteriores respuestas es correcta.

**3      TIENE LA CALIFICACIÓN DE ACTO ADMINISTRATIVO...**

- 3a) Un dictamen de un órgano consultivo de la Administración.
- 3b) Un auto del juzgado de lo contencioso-administrativo.
- 3c) La autoliquidación del IVA.
- 3d) La toma de posesión por un funcionario de la plaza que se le ha designado.

**4      LOS ACTOS ADMINISTRATIVOS PUEDEN CLASIFICARSE SEGÚN SU EXTERIORIZACIÓN COMO...**

- 4a) Orales y Escritos.
- 4b) Expresos y Tácitos.
- 4c) Orales, Tácitos y mímicos.
- 4d) Expresos y Orales.

**5      NO ES CONSIDERADO RECURSO ADMINISTRATIVO...**

- 5a) El recurso extraordinario de revisión.
- 5b) El recurso de alzada.
- 5c) El recurso de reposición.
- 5d) El recurso de casación.

**6      SON RECURSOS ADMINISTRATIVOS...**

- 6a) Los recursos de alzada y reposición, así como el de apelación.
- 6b) Los recursos de alzada, revisión y apelación.
- 6c) Los recursos de alzada, reposición y casación.
- 6d) Ninguna de las respuestas anteriores es plenamente correcta.

**7 EL RECURSO DE REPOSICIÓN FRENTA A UN ACTO DICTADO POR UNA CONSEJERA DEL GOBIERNO VASCO...**

- 7a) Se debería interponer ante el órgano superior del órgano que dictó el acto recurrido, es decir, el Gobierno Vasco.
- 7b) Se debería interponer ante el órgano superior del órgano que dictó el acto recurrido, es decir, el lehendakari.
- 7c) No se podría interponer ya que sólo cabría la posibilidad de acudir a los tribunales.
- 7d) Se debería interponer ante el mismo órgano que dictó el acto recurrido.

**8 EL DAÑO MORAL, A LA HORA DE EXIGIR LA RESPONSABILIDAD DE LA ADMINISTRACIÓN...**

- 8a) No puede ser alegado ya que no es evaluable económico.
